

V.- ZUZENBIDEA EUSKERAZ IRAKASTE-KO BURUTU DIREN LANAK

Ikastetxe nagusian bestelako irakasgaiak euskeraz irakasten asi ziren garaiean, nabarmena danez, ez zan ez euskeraz idatzitako eskulibururik, ez iztegi-rik ezta aldizkaririk ere ikaslearen ikasketak bear diren bezela egin aal izateko. Zuzenbidearen arloan argitara eman zen leendabiziko iztegia, UZEIk egindako iztegia izan zen eta Zuzenbidean erabil oi diren itzak orokorki jasotzen ditu. Iztegi au orokorra de-
nez, Zuzenbidean dauden sail ezberdiñetan erabil-
tzen diren itz asko euskeratu gabe geratu ziren.

Orregatik sail orietan dauden irakasleak iztegi be-
reziak egin bear izan dituzte. Errialdearteko Zuzen-
bidearen arloan iztegitxo bat egin genuan,
Campos katedradunak aren edukiña edo mamia
gain-begiratu zuelarik.

Eskuliburuak ere euskeratu izan dira. Geienak er-
deratik itzuliak eta jatorrizko liburuen laburpenak di-
ra. Argitara eman diren itzulpen aukeratuak idatziak
izan dira.

Azken itz moduan ta lantxo apal onetan azalduta-
ko Zuzenbidearen ikasketen ezaugarriak kontutan
artuz, gaur-egungo euskeraz ematen den irakasgin-
tzak urrats andiak eman bear ditu mailla dotore bat
lortu arte. Urrats aukeratuak, irakasleok ikasleen laguntzaz
eman beariko ditugu, alde batetik, lana eginez eta
bestetik, gure ogibidean erabiltzen digun euskera
lantzen eta zaintzen, erderakadak aalik eta geien
baztertzen.

ESKUBIDEAK**OTAEGI'tar IDOIA**

Euskalerrriak ba dau ederrik
mendi, zelai errietan,
odol berezi ta buru azur
bardin gabeko itzetan;
berek dituzte, alan bearrez,
sortzez arturik egitan,
lur eder oni dagozkiozan
jakiturriak benetan.

Otaegitik aukera zendun
irakasteko bidea,
eguzkiak lez zabalduko
argia kabi ontara;
zure erria, Euskalerrria,
adi daukazu begira,
egia artuz, gaizkatu dedin
euskaldunaren bizitza.

PAULIN

**IDOIA OTAEGI'ren ITZALDIA, ATZO, BIL-
BOKO EUSKAL ASTEAN****Euskerazaleak**

BILBAO. Atzo izan eben Euskerazaleak Euskal-
Astearen bigarren eguneko ekiñaldia. Idoia Otaegi
andereño donostiarra ta irakaslea izan zan izlaria eta
Irakaskintza euskeraz eskubide-arloan izan zan be-
rak artu eban gaia.

Idoia andereñoa euskereari buruz arduratuta ager-
tzen dala esan euskun Zubiri'tar Iñaki'k aurkezpe-
nean eta alantxe ikusi al izan gendun guztiok bere
itzaldia entzundakoan. Sarritan uste izaten dogu eus-
kerea etxean erabilli bear dan izkuntza dala, baiña
benetan euskerea maite dogunok, beste mailla batzu-
tan be erabilten dala gure izkuntza ikusi gura dogu,
Ikastetxe Nagusietako maillan be bai.

Egia esan, billatzailleak euren billaketaren ondo-
renak agertzeko egiten dabezan lan zeatz eta sako-
nak ezin agertu leitezke euskera utsean, munduko ja-
kitunak eta billaketa orren ondorenak artu bear dabe-
zan geienak euskerarik ez dakielako, baiña irakas-
kintzan eta euskera dakien ikasleak aurrean dauzan
irakasleak, euskeraz irakatsi bear leuke. Ez da arlo-
rik gatzena Eskubide arloa, baiña iztegi egoki bat
osotzea ez da beti gauza erreza.

Ondo goratu eban Paulin olerkari-Bertsolariak
Ikastetxe Nagusian erabilten dan euskerea bere eki-
ñaldian.

Amaitzeko, egunero lez, Alkartearen lendakariak
biarko gaia ta izlaria iragarri ebazan: Enrike Zabala
Irakaslea da izlari eta berak artu dauan gaia "Esate ta
ibilte azkarraren mundua". Gaia oso gaurkoa da eta
gure Enrike'k arlo orrretan esateko asko dauz.